

ZZ eragilea :



Lekua : Tarnose, interneteko salerospena : demacreation.com, artesau merkatuak Baiona inguruan

Aktibitatearen aurkezpena : DEMA création larrukigintza marka eko-engaiatua da, 100%frantses fabrikazioa, zero plastika.



Nathalie 06 31 69 85 88



DEMA.création



Angélique-i hitza

DEMA création-eko Larrukigintza sortzailea

Zer da DEMA création-eko abiapundua ?

Eko-engaiatua den eta modaren lanbide guziak hunkitzen dituen proiektu baten ukaiteko gogoia izanki, nere marka sortu nahi nuen, eskulangintza espiritua ukanez, plastika gabeko produktuak erabiliz eta familian lan eginez.



Zertan parte hartzen duzu ZHZXan ?

Produktu guziak gure tailerlean pentsatuak, marraztuak eta eginak dira, tokiko enpresa batzuekin elkarlanean arituz (Iletegia lantegia Manex ardien artilearentzat, Baionako Le Béret Français edo Orthez-eko Moutet ehundegia....) eta urrats guzietan ingurumenari kasu eginez (berrerabiliak diren lehengaiak hautatuz, vegan oihalak erabiliz,...)

Zoin abilezi emango zenuke ZHZX dinamikan sartzeko ?

Gure kontsumo ohiturak alda ditzagun eta gure kontzientzia iratzar dezagun gure aztarna ekologikoa murrizten dituzten alternatibak hautatuz : tokiko fabrikazioa, berrerabiliak diren lehengaiak , oihal ebakinak, partaidetzak, ...

